



2018ko oinarriak

**IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEI , TALDEEI ETA PERTSONEI
DIRULAGUNTZA EMATEKO OINARRIAK, INGURUMENAREKIN
LOTUTAKO ZENBAIT PROGRAMA ETA JARDUERA EGITEKO**

1.ARTIKULUA. XEDEA

Arau honen xedea da ingurumenaren alorrean helburu jakin batzuk dituzten irabazi asmorik gabeko erakundeentzat, taldeentzat eta pertsonentzat urteko jardueretarako dirulaguntzak arautzea.

2.ARTIKULUA. ONURADUNAK

Oinarri hauetan araututakoek eska dezakete dirulaguntza:

- Jarduteko eremua Azkoitian duten eta legez eratuta dauden entitate, elkarte, klub, erakunde eta sozietateek.
- Azkoitian ingurumena hobetzeko helburuz eskuarki eta noizean behin jarduera jakin bat egiteko elkartzen diren banakoek eta horiek osatzen dituzten taldeek.

Ezingo dira oinarri hauek arautzen dituzten dirulaguntzen onuradun izan, honako baldintzetakoren bat betetzen duten entitateak:

- a) Epai irmoz dirulaguntza publikoak eskuratzeko eskubideaz gabetuta daudenak.
- b) Konkurtso-deklarazioa eskatu dutenak, prozeduraren batean kaudimengabeak deklaratu izan direnak, konkurtso-egoeran deklaratuak izan direnak, interbentzio judizialpean daudenak edo Konkurtso Legearen aplikazioz ezgaituak izan direnak, konkurtso-adierazpeneko sententziak ezarritako ezgaitze-epea igaro ez bada.
- c) Administrazioarekin izenpetutako kontraturen bat irmoki deuseztatzeko arrazoiren baten erantzule deklaratuak izan direnak.
- d) Bateriaezintasunen bat duten pertsona fisikoak, administratzaileak edo pertsona juridikoaren legezko ordezkariak izan direnak, indarreko bateraezintasun-arauen arabera.
- e) Indarreko xedapenek araututako zerga-betebeharrak edo gizarte-segurantzarekikoak egunean betetzen ez dituztenak.
- f) Dirulaguntzak arautzen dituzten xedapenak betez, ebazpen irmoz dirulaguntzak eskuratzeko eskubideaz gabetuak izan direnak.
- g) Dirulaguntzak itzultzeko obligazioen ordainketak egunean ez dituztenak.

Dirulaguntzen onuradun izateko debekurik ez dutela justifikatzeko, lekukotza judiziala edo ziurtapen administratiboa aurkeztu beharko dute entitateek, kasuan kasu; eta agiri horiek eman ezinak badira, deklarazio erantzule batek ordezkari ditzake, administrazio publiko baten edo notario baten aurrean egiletsitakoak badira.

Hauek dira dirulaguntzen entitate onuradunen betebeharrak:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2018ko oinarriak

- a) Dirulaguntzaren xede den helburua betetzea, proiektua gauzatzea, jarduera egitea edo jarrera hartzea.
- b) Dirulaguntza eman duen organoari justifikatzea baldintzak bete direla eta diruz lagundutako jarduerak egin eta xedeak lortu direla.
- c) Dirulaguntza eman duen organoak egin beharreko egiaztapen-jardueren eta kontrol-organo eskudunek egin ditzaketen egiaztapeneko edo finantza-kontrolako gainerako jardueren hartzaile izatea, eta jarduera horien harian eskatutako informazioa ematea.
- d) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzen dituzten besten dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu izana jakinaraztea dirulaguntza eman duen organoari. Jakinarazpena horien berri izan laster egin beharko da, eta, betiere, emandako dirulaguntza zertan aplikatu den justifikatu baino lehen.
- e) Zerga-alorreko eta gizarte-segurantzako betebeharrak egunean betetzen direla egiaztatzea, dirulaguntzen eta laguntzen alorrean aplikagarriak diren arauen arabera.
- f) Kasu bakoitzari aplikagarri zaion araudiak eskatutako kontularitza-liburuak, erregistro izapidetuak eta gainerako agiriak izatea, baita dirulaguntzak arautzen dituzten berriazko oinarriek eskatutako kontularitza-egoerak eta erregistro espezifikoak edukitzea ere, egiaztapen- eta kontrol-eskumenen erabilera bermatzeko.
- g) Jasotako dirulaguntzak nola aplikatu diren egiaztatzen dituzten agiriak gordetzea, horiek egiaztatzea eta kontrola daitezkeen neurrian.
- h) Jasotako dirua itzultzea, aplikagarriak diren arauak xedatutako kasuetan.
- i) Dirulaguntza emateko aintzat hartutako egoeren aldaketak jakinaraztea hura eman duen organoari.

Dirulaguntza horiek beste dirulaguntza batzuekin bateragarri izan daitezke, baina jarduera horretarako beste dirulaguntzarik eskatu den adierazi beharko da. Dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da izan diruz laguntzen den jarduerak duen kostuarena baino handiagoa.

3.ARTIKULUA. DIRULAGUNTZA HONAKO JARDUERAK EGITEKO EMAN AHAL IZANGO DA

Ingurumen-esparruaren baitan eta Azkoitian :

- Hitzaldiak.
- Urteko dibulgazio kanpainak eta azterketak.
- Prestakuntza-ikastaroen antolaketa.
- Biztanleriaren zenbait sektoreren aisialdia eta denbora libre.
- Herritarren parte-hartzea sustatzen duten jarduerak.
- Tokiko ekonomia-garapena sustatuko duten jarduera eta ekimen oro, horrek herritarren bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duela kontuan hartuta.
- Auzolanean antolaturiko ekintzak gauzatzeko beharrezkoa den materiala.

*****Ez da dirulaguntzarik emango jarduerak gauzatzeko talde edo erakundeak osatzen dituzten pertsonen lan orduak ordaintzeko.**



2018ko oinarriak

4.ARTIKULUA. JARDUEREN HIZKUNTZA

Jarduerak egiteko proposamenak eta diru laguntza zuritzeko memoria euskaraz edo Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu beharko dira.

Azterketa eta ikerketen kasuan, behin betiko txostena eta WORDekin bateragarria izango den euskarri informatikoa bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu beharko da, bai euskaraz, bai gazteleraz. Gainontzeko jarduerak euskaraz ala elebidun egin behar dira.

5.ARTIKULUA.FINANTZAKETA

Dirulaguntza horiek emateko udalak dagokion aurrekontu partida bideratuko du, eta aurrekontu horren zenbatekoa izango da Azkoitiko Udalak emango duen gehienekoa.

Udalaren laguntza bateragarria izango da gainerako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako diru-laguntzekin, eta onuradunaren gainontzeko sarrerekin. Edonola ere, ezingo da gain-finantzaketarik izan, eta egoera hori gertatzen bada, onuradunari diru-laguntza murriztuko zaio dagokion zati proportzionalan.

6.ARTIKULUA. ESKAERAK, DOKUMENTAZIOA ETA AURKEZTEKO EPEA.

Dirulaguntzak emateko, lehiakide anitzeko lehiaketa-sistema erabiliko da.

Hau da eskaerak aurkezteko epea:

-Urte hasieran oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira eta deialdiari hasiera emango zaio. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik 30 eguneko epea egongo da eskaerak aurkezteko.

Lehen deialdian eskatutako laguntzak eman ondoren, esleitutako aurrekontu-sailak aukerarik ematen bada, jarduera puntualak egiteko eskaerak aurkezteko aukera izango da.

Dirulaguntzen eskaerarekin batera dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- 1) Dirulaguntzak eskatzeko Azkoitiko Udaleko Herritarren Arretarako Bulegoan interesdunen esku dagoen eskabide ofizialaren ereduaren arabera dirulaguntza-eskaera.
- 2) Eusko Jaurlaritzako elkartearen eta erakundearen erregistroko inskripzio-ziurtagiria.
- 3) Identifikazio fiskaleko kodearen fotokopia.
- 4) Erakundearen edo taldearen estatutuak.
- 5) Eskatzailea norbanakoa bada, NANaren eta Curriculum Vitae-aren fotokopia (ez ditu aurkeztu behar 2, 3, eta 4 puntuetan adierazitakoak).



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2018ko oinarriak

- 6) Dirulaguntzaren xede izango den programa edo jardueraren memoria zehatza (epeak, metodologia, helburuak...).
- 7) Dirulaguntzaren xede izango den programa edo jardueraren aurrekontua.
- 8) Erakundearen urteko aurrekontua.
- 9) Kontu korrontearen jabetzaren banku-ziurtagiria.
- 10) Beste entitatearen bati dirulaguntza eskatu bazaio, horren ziurtagiria.
- 11) 2. artikuluari dagokion egiaztagiria.

7.ARTIKULUA. BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Eskaerak dagokion Batzordean aurkeztuko dira eta horien inguruan egindako txosten teknikoa jakinaraziko zaio Batzordeari. Eskaerak aurkezteko azken egunetik hasita, hurrengo 30 egunetan Alkateak edo Zinegotzi Delegatuak ebazpena gauzatu du.

Dirulaguntzak esleitzeko orduan, hurrengo puntu hauek hartuko dira kontuan. Puntu horiek eskaerarekin batera aurkeztu beharreko memoria laburrean edo, bestela, txostenean egiaztatu beharko dira.

7.1 Egin beharreko programaren edo jardueraren kalitatea, jarduera eta abar.15 puntu
Irizpide honetan baloratuko da: lortu nahi diren helburuak eta proiektuaren garapen maila)

7.2 Eskatzaileak garatutako urteko programaren ekarpena, ingurumena zaintzea sustatzeko nahiz herritarren parte hartzea sustatzeko.15puntu

7.3 Dirulaguntzaren xede den programaren edo jardueraren onura jasoko duen lagun kopurua.10puntu

7.4 Eskatzaileak bere jardueraren garapen esparruan egindako ibilbidea, eta izandako jarraikortasuna eta egonkortasuna.5puntu

7.5 Ingurumen-jardueren (Aste Berdea, Mugikortasunaren astea) urteko udal programari egindako ekarpena eta dirulaguntzaren xede diren jardueren jarraikortasuna.5puntu

Eskaera ebatzi ondoren, eskatzaileei jakinaraziko zaie eta GAOn argitaratuko da, 20 eguneko epean.

8.ARTIKULUA. DIRULAGUNTZAK EMATEA

Alkateak edo Zinegotzi delegatuak hartutako ebazpena jakinarazi ondorengo 20 egunetan ordainduko da dirulaguntzaren erdia (%50). Jardueraren memoria eta izandako gastuak eta sarrerak egiaztatu ondorengo 30 egunetan ordainduko da beste erdia (%50). Horretarako, elkartearen idazkariak (elkarteen kasuan), edo pertsona eskatzaileak dagokion ziurtagiria (elkartea) edo aitoren erantzulea (pertsona fisikoa) aurkeztu beharko du.Hiru hileko epea izango da memoria eta gastuen ziurtagiriak aurkezteko, diruz lagundutako jarduera egiten denetik aurrera.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2018ko oinarriak

Jarduera zehatzak eta ohiz kanpoko kasuak badira, eta elkarte , talde eskatzaileak edo pertsonak eskaerarekin batera beharrezko egiaztagiriak aurkezten baditu eta dagokion Batzordeak proposatzen badu Alkateak edo Zinegotzi Delegatuak beste modu batera banatzea erabaki dezake, artikulua honetan adierazitakoa ez bezalako modu batera, alegia.

Diruz Lagunduriko ekintzak gauzatzeko epea eskaera egin den urte naturala izango da.

9.ARTIKULUA. PUBLIZITATEA

Jarduera hauei buruzko informazio eta publizitate orok euskaraz edo elebitan agertu beharko du hedabideetan, eta, behar izanez gero, udaleko euskara zerbitzura jo daiteke zuzenketa eske. Argitalpen horietan, nahitaez agertu beharko du Azkoitiko Udalak dirulaguntza eman duela.

10.ARTIKULUA. EZ-BETETZEA

Araudi honek dirulaguntza emateko aipatutako baldintzaren bat ez-betetzeak dirulaguntza kentzea eragingo du, eta adierazitako epean beharrezko dokumentazioa aurkezten ez bada, jasotako dirulaguntza guztia itzuli beharko da.

11.ARTIKULUA. INTERPRETAZIOA

Oinarri hauen interpretazioaren harira sor daitekeen edozein zalantzari buruz erabakitzea organo emailaeari dagokio beti ere dagokion batzordearen aurre txostenak eraginda.

12.ARTIKULUA. ORDEZKO ARAUDIA

Oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen guztian, betetzekoak izango dira Estatuak diru laguntzetarako 2003ko azaroan 17an eman zuen 38/2003 Lege Orokorra, eta uztailaren 21eko 887/2007 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Diru Laguntzei buruzko Erregelamendu Orokorra.